

KOSTUAK

Beste edozein enpresatan bezala, gureak ere baditu gastuak. Horregatik, enpresa batek funtziona dezan, beharrezkoa da kostu mota bat planteatzea, kostu horiek kontuan hartuta lan egin ahal izateko.



Kostu-egiturak hainbat ezaugarri ditu:

- Kostu finkoak.
- Kostu aldagarriak.
- Eskala-ekonomiak.
- Hedapen-ekonomiak.

Gure kasuan gure enpresarako balioan oinarritutako negozio-eredua erabili dugu. Monopolioa aprobetxatu baitezakegu prezioak igotzeko nahiz eta guk ere gehiago ordaindu behar badugu (zerbitzu hau eskaintzen duen enpresa bakarrenetako bat baikara inguru honetan).

Hasierako kostuak: hasiera batean materialetan egin beharko dugu inbertsio gehiena, material bereziak behar ditugulako ezinduek igeri dezaten. Ezin dugu zehazki jakin zenbat kostatuko zaizkigun material hauek, baina erosi nahiko bagenitu, 30.000 euro inguru jarri beharko genituzke, beraz, seguruenik alokatu beharko genituzke hasieran, eta behin gure proiektua aurrera doala, erosten saiatuko ginateke.



Kostu aldakorren barruan igeri egiteko erabiltzen ditugun materialak ditugu (erabilerarekin puskatu edo galdu daitezkelako eta noizbehinka hauek asko erabiltzen badira berritu behar direlako). Bestalde, **kostu finkoetan** kiroldegiaren igerilekuaren alokailua dago. Hau kiroldegiarekin adostu beharko genuke baina printzipioz hala balitz bezala tratatuko



dugu, horrela izaten baita normalean (aurreikusten dugu izango direla 150 euro inguru). Honen barruan soldatak ere baditugu, monitore batzuk kontratatuko baititugu gure zerbitzuetarako. Lau monitore desberdin izango lirateke, eta 1.000€ inguru kobratuko lituzkete, astean 10 orduz lan egin beharko luketelako.